



Antton Arrieta Valverde **Euskal Herriko forteak** Berpizkundetik karlismora

Gure herri txikian, bi erresuma oldarkorren artean kokatuta eta hainbatetan gerraren erdigune izanik (Konbentzio-gerra, gerra napoleonikoak, karlistaldiak...), azkeneko lau mendeetan mila forte baino gehiago eraiki ziren, mota guztietakoak (fortekanoitegia, zitadelak, gerizpeak...). Lurrazpiak gordeta dauzka oraindik horien aztarna ugari, eta horiek argitara ekartzea izan da liburu honen helburua. Antton Arrietaren urteetako lanaren gailurra, garaiko ilustrazio, deskribapen zehatz, forteetara iristeko plano zein mapa eta argazkiz lagunduta datorrena. Gure historia hurbil baina ezkutua, edozeinentzat eskuragarri.

464 orr. 32,00€

ISBN 978-84-15313-96-0



Antton Arrieta Valverde (Lima, 1955), 16 urterekin euskara ikasteari ekin (eskolak astean behin hartuta eta matrikula bost pezetan ordainduta) eta Aranzadin eta Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen eman zuen izena. Gipuzkoako baselizen gaia jorratzen hasi zen eta *Ermitas guipuzcoanas en mal estado o en ruina* (1973) argitaratu zuen. Geroago, horien milaka diapositiva egin zituen. Enpresa-zientzietan lizentziatua, gizarte zerbitzuetako gestioan lan egin du hogeita hamar urtez, eta esparru horretakoak dira argitaratutako hainbat lan. Ondoren eta gaur arte, Gipuzkoako Gordailua Kultur Ondare Higidariaren Zentroko zuzendaria da. Aldi berean, arkitektura historiko militarren esparrua ikertzen eta aztarnak Euskal Herri osoan miatzen eta dokumentatzen ibili da azken bi hamarkadetan, euskaraz beti ere. Lan horien guztien emaitza batzuk argitara eraman dira aldizkari eta artikuluetan eta gazteluei eskainitako ondoko lan sakongoetan: *Euskal Herriko 101 gaztelu* (CD euskarrian), *Gipuzkoako gazteluak* (Hiria, 2006).

